

BERDINTASUNA

PROGRAMAZIO ZABALA MARTXOAK 8AREN ETA ZAINZAREN GAIAREN INGURUAN

PROGRAMAK, BESTEAK BESTE, OSASUN MENTALARI ETA GENEROARI BURUZKO TAILER BAT, IPUIN KONTALARIEN SAIO BAT, KALE AGERRALDI BAT ETA HITZALDI BAT BATZEN DITU.



Beste behin ere, Urkabustaizko Udalak, tokiko hainbat kolektibo feministaren laguntzarekin, programazio zabala antolatu du martxoaren 8aren inguruan, joan den azaroaren 30eko greba-deialdian egin zen bezala, fokoa zaintzan jarrita.

Martxoaren 6tik 21era

Programa martxoaren 6an hasiko da, osasun mentalari eta generoari buruzko tailer batekin. Tailer hori apirilaren 10ean eta maiatzaren 8an ere egingo da kultur etxean, 18:00etatik 19:00etara, gaztelaniaz. Tailerra Irene Berta Santa Agullo Este-reotipak elkarteko kideak dinamizatuko du eta plaza kopurua mugatua da. Izena emateko, idatzi estereotipak@gmail.com helbidera.

Entzute partekatuaren bidez eta er-respetuzko giroan, pertsona bakoitzaren estereotipoak identifikatuko dira, osasunaren hainbat arlotan nola eragiten diguten identifikatuko da, eta estereoti-

poetatik kanpoko bizipen osasungarriak berreskuratuko dira.

Bestalde, martxoaren 7an "Super Ni" ipuin kontaketa saioa antolatu da 5 urtetik gorakoentzat, Zirkugintza Kooperatibako Elssie Xalbadorren eskutik, 17:30ean.

Martxoak 8ko manifestazioa, Izarran

Ondoren, martxoaren 8an, Gorbeialdeko Mugimendu Feministak Emakumeen Nazioarteko Eguneko Kuadrillako manifestazioa deitu du Izarran. 19:00etan abiatuko da Beheko Iturritik.

Azkenik, martxoaren 21ean, "La vida en el centro desde el feminismo antimilitarista" hitzaldia antolatu da. Emakumeak Gerraren Aurka – Mujeres Contra la Guerra elkarteak gidatuko du hitzaldia. Elkarte horrek arreta jarriko du emakumeek gerretan duten rolean, gizonak eragindako gerretan bi aldiz kaltetuak diren biktima gisa.

BERDINTASUNA

IRAKURKETA FEMINISTEN GOMENDIOEN GIDA

UDALEKO BERDINTASUN SAILAK IRAKURKETA FEMINISTEN HAINBAT GOMENDIO BATZEN DITUEN GIDA SORTU DU.

Gidak feminismoari eta LGTBQ+ gaiari buruzko liburu ugari biltzen ditu, euskaraz zein gaztelaniaz, eta helduei zuzendutako gain, haur eta gazteentzako liburu espezifiko batzuk ere badaude.

Horrez gain, gidak Urkabustaizko liburutegiak bildutako material katalogo zabala erakusten du. Liburutegian gai hauekin lotutako euskarazko eta gaztelaniazko liburu ugari daude, publiko motaren arabera bereizita (helduak, haurrak edo gazteak), bai eta erakundeek eta elkarteek gai horiei buruz egindako azterlan eta gida ugari ere.

Irakurketa feministarako gomendioak

Recomendaciones de lecturas feministas



UDALERRIKO ADINEKOEN ONGIZATEAREKIKO KEZKA

UDALAK LAN MAHAI BAT SORTU NAHI DU UDALERRIKO ADINEKOEN BIZI KALITATEA ETA ZAINZA HOBETZEKO. HELBURU HORREKIN BATU BERRI DA UDALA GIZARTE ONGIZATEKO FORU DIPUTATUAREKIN.

Udaleko ordezkariak, Kukuso Taldekoekin batera, Gorka Urtaran Gizarte Ongizateko foru diputatuarekin bildu ziren otsailaren 14an Urkabustaizen.

Ordezkaritza hori alkateak, gizarte langileak eta Kuadrillan zaintzan arreta jartzen duen Kukuso Taldeko ordezkariak osatu zuten, eta Gizarte Ongizateko Foru diputatuarekin bildu zen, departamentu honi udalerriko adineko jendearen arazoa helarazteko, 200 pertsona baino gehiagok osatzen duten jendartea.

Udala eta Kukuso Taldea kezkatuta daude udalerriko adinekoen zaintza eta ongizatearekiko; izan ere, azaroan Zabalbide egoitza itxi zen; eta udalerriko erretiratuen elkartean erreleborik ez dago erreleborik, pandemiak geroztik ez baitio elkarte honen bere jarduerari berriro ekin. Bi gertaera hauek gehiago larritu dute udalerriko nagusien egoera.

Egoitza publikorik ez Kuadrillan

Gorbeialdeko Kuadrillan ez dago egoitza publikorik. Gainera, Kuadrillako hainbat udalerritan ez bezala, Urkabustaizek ez du eguneko zentrorik, eta erabiltzaileek Zuiara joan behar dute, CRADaren erabiltzaileen erdia inguru Urkabustaizekoak izanik.

Udal gobernua, Kukuso Taldeak eta arlo honetan ekarpenak egin nahi dituen beste edozein kolektibok gai hau landuko dute Urkabustaizko adinekoen bizi kalitatea hobetzeko asmoz, eta zeregin horretan nahiko lukete Arabako Foru Aldundia udalerrian zerbitzu horiek hobetzeko bidelagun izatea; horrela, adinekoak ez dira behartuak egongo senideengandik urruntzera beren bizitzako fase honetan.

URKABUSTAIZKO ETXEBIZITZA FALTARI KONPONBIDEA BILATU

UDALA HAINBAT AUKERA AZTERTZEN DABIL UDALERRIAN ETXEBIZITZA ESKURAGARRIAK EGON DAITEZEN, ETA HORRETARAKO BILERA EGIN DU EUSKO JAURLARITZAKO ETXEBIZITZA, LURZORU ETA ARKITEKTURA ZUZENDARITZAREKIN.



Udala hainbat aukera aztertzen dabil udalerrian etxebizitza eskuragarriak egon daitezen, eta horretarako bilera egin du Eusko Jaurlaritzako Etxebizitza, Lurzoru eta Arkitektura Zuzendaritzarekin.

Udaleko ordezkariak Eusko Jaurlaritzako Etxebizitzako Plangintzaren eta Prozesu Eragileen zuzendari Mario Yoldirekin bildu ziren otsailaren 5ean, Urkabustaizen dagoen etxebizitza faltari irtenbidea emateko.

Eusko Jaurlaritzak Udalari jakinarazi dio prest daudela Urkabustaizen etxebizitzak eraikitzeke, baldin eta Udalak horretarako lurzorua ematen badu. Zoritxarrez, Udalak une honetan ez du horretarako lurzoru propiorik. Horregatik, hainbat aukera aztertuko dira.

Alternatibei buruzko kontsulta

Bestalde, Udalak kontsulta egin dio Eusko Jaurlaritzari erabiltzen ez diren baserriak konpondu eta horiek etxebizitza sozial bihurtzeko aukerari buruz, baita coliving ereduko etxebizitzak sortzeko ere, hau da, erabilera komuneko zonak dituzten etxebizitzak.

Etxebizitzako Plangintzaren eta Prozesu Eragileen Zuzendaritzak Udalari jakinarazi dio bi aukera horiek sustapen pribatukoak izan behar dutela, eta ez publikoak, eta dirulaguntza garrantzitsuak daudela proposamen horietarako, betiere partikularren proposamena bada.

Udala arazo larri horri irtenbidea emateko aukerak aztertzen hasia da.



UDALAK LANTALDEKO ARDURADUN BAT KONTRATATUKO DU

MARTXOTIK IRAILERA LANALDIAREN % 100ERA, UDALERRIA EGOKITZEKO LANETAN 10 PEIKO LANTALDEA KOORDINATZEKO.



Udalak lan-eskaintza bat egin du 10 peoi berrik osatutako talde bateko arduradun bat kontratatzeke. Peoi horien egitekoa da udalerrian egokitze-lanak egitea, bai eta konponketa-lan txikiak, lorezaintzako eta igeltserotzako oinarritzko lanak, espazio publikoak mantentzea eta natura zaintzea ere.

Egun hauetan udal-bulegoetan curriculum aurkeztu behar da. Izena emateko epea otsailaren 29an, ostegunean, amaituko da.

Krokaduradun ibilgailu propioa

Curriculumak baloratzeko, prestakuntza, lan-esperientzia eta elkarrizketa pertsonala aztertuko dira. Gainera, lanposturako hautagaiak lotura duen ibilgailu propioa izan beharko du.

Lanbide-Euskal Enplegu Zerbitzuaren eta Europako Gizarte Funtsaren deialdiaren barruko programa da hau, Eusko Jaurlaritzaren FSE Plus Programaren esparruan.

LURRALDE KONTSEILUAK KONTZEJUEI FUNTSAK ITZULTZEA

ARABAKO TOKI ADMINISTRAZIO ETA FINANTZEN LURRALDE KONTSEILUAK 2023KO KONTUAK ITXI DITU ETA SARRERA HANDIAGOAK AURREIKUSI DITU UDALERRI ETA KONTZEJUENTZAT

Arabako Toki Administrazio eta Finantzeta Lurralde Kontseiluak otsailaren 16an egin zuen ohiko bilkura. 2023ko zerga bilketaren itxieraren berri eman zen Araban, eta 2.841,1 milioira iritsi zen, aurreko urtean baino 112 gehiago, hau da, % 4,1eko igoera eman zen.

Emaitza kalkulaturako diru sarrerak baino handiagoa denez, Arabako kontzeju eta udalerrri bakoitzak FOFELaren gehikuntza baten bidez jaso beharreko gainerako zenbatekoak zein izango diren ondorioztatu zen, dagokion likidazioa egin ondoren.

Urkabustaiz osatzen duten kontzejuei dagokienez, hauek dira bakoitzak jaso beharreko zenbatekoak:

Abezia 81,35 euro; Abornikano 114,72 euro; Beluntza 65,76 euro; Goiuri-Ondona 87,83 euro; Inoso 40,23 euro; Izarra 1.639,92 euro; Larrazkueta 15,80 euro; Oiardo 67,71 euro; Untza-Apregingdana 103,08 euro eta Uzkiario 29,99 euro. Udalak, bere aldetik, 6.427,92 euro eskuratuko ditu.





Nerea Lorón Díaz

1983, Cascante (Navarra)

Nerea Lorón Díaz Cascanten jaio zen, Nafarroan, 1983an. Haurtzaroa eta nerabezaroa Nafarroako Erriberan igaro zituen. Bilbon hasi zen goimailako ikasketak egiten, eta Donostian amaitu zituen. Han, mugimendu feministarekin bat egin zuen, eta gizarte-hezitzaile gisa lan egin zuen adingabeen tutoretzapeko pisuetan. Hemen hasten da bere karrera rap-kantari gisa.

2013tik «La Furia» izenarekin rapeatzen du. “No hay Clemencia” bere lehen diskoa argitaratu zuen urte horretan. La Tuerka programan parte hartu zuen, «Atzera begirako abortua» gaiarekin, eta zabalkunde handia izan zuen. Gero “Vendaval” diskoa etorriko zen 2017an. 2019an Korrikako abestian parte hartu zuen Mad Muasel eta Fermín Muguruzarekin batera, eta “Pecadora Volumen I” eta “Pecadora volumen II” diskoak argitaratu zituen. “Post-Mortem” bere azken diskoa 2022an argitaratu zen.

Gaur egun, management feminista-lanak egiten dituen Mimosa Bulegoa proiektuaren sortzaileetako bat da. Talde eta bakarlari feministen ordezkari giteko sortu dute gune hau, emakume artistak prekariztatetik ateratzeko eta haiek zaintzatik eta logika feminista batetik irudikatzen.

Gainera, rap tailerrak eman izan dizkie emakume gazteei, ahalduntze feministako tresna gisa. Bere letrak ezagunak dira gizarte matxista eta patriarkal batean emakumeen errealitatea modu gordinean kontatzeagatik.

Nerea Lorón Díaz nació en Cascante, Navarra en 1983. Pasó su infancia y adolescencia en la Ribera de Navarra. Comenzó a cursar estudios superiores en Bilbao y los finalizó en Donostia donde se unió al movimiento feminista y trabajó como Educadora Social en pisos tutelados de menores. Es aquí también donde comienza su carrera como rapera.

Desde el año 2013 rapea con el nombre de «La Furia» y publicó su primer disco No hay Clemencia. Participó en el programa La Tuerka con el tema «Aborto retrospectivo» con el que tuvo amplia difusión. Después vendría el disco Vendaval en 2017. En el año 2019 participó en la canción de la Korrika junto a Mad Muasel y Fermín Muguruza. y publicó el disco Pecadora Volumen I, y el volumen II. Su último disco Post-Mortem fue publicado en 2022.

Actualmente es cocreadora de Mimosa Bulegoa, un proyecto de Management Feminista, han creado este espacio para representar a grupos y solistas feministas, con el objetivo de sacar de la precariedad a las mujeres artistas y representarlas desde el cuidado y una lógica feminista.

Además, ha impartido talleres de rap como herramienta de empoderamiento feminista a mujeres jóvenes. Sus letras son famosas por la crudeza con la que relata la realidad de las mujeres en un sociedad machista y patriarcal.